



ARALAR MENDIZERRA EZAGUTZEKO ETA DISFRUTATZEKO JARDUERA PROGRAMA (2022ko abuztua)

Abuztuan, hainbat bisita eta jarduera egingo dira Aralar mendian, ingurune natural berezi horren balioak ezagutzeko.

Seigarren urtez jarraian, eta Aralarko San Migel Santutegiaren, Aralarko Batasunaren, Sakana Gara-pen Agentziaren eta Plazaolako Partzuergo Turistikoaren arteko lankidetzaren ondorioz, Aralarren hainbat bisitaldi eta jarduera gidatuak antolatu dira bisitariei eta bertako biztanleei mendizerrako balio naturalak, historiko-kulturalak eta ingurumenekoak ezagutarazteko.

Bisita gidatu teknikoak: Aralarko paisaiak eta Aralarko trikuharriak

Aralarko paisaiak ezagutu eta interpretatzeko bisitak abuztuaren 6an eta 11an izango dira. 8 km inguruko ibilbidea dugu honakoa (erraza/ertaina. 4 ordukoa). Bertan, pagadia, "arkuek" (harrizko etxola kupularrak), karst-a (leizeak, hustubideak, dolinak...), belardien kudeaketa eta erabilera tradizionalak eta gizakiak paisaian utzitako aztarnak ikasi eta interpretatuko dira. Hori guztia, besteak beste, Bustintzako hustubidea, "el raso" belardi berdeak eta Txorrotxetarako igoera (1230 m) bisitatuz, bertatik Aralarko zabalguneen gaineko panoramikez gozatzeko.

Aralarko trikuharriak abuztuaren 4an eta 13an bisitatuko dira. 4 km-ko ibilbide erraza (3 ordukoa), Aralarko San Migel santutegian paisaiaren interpretazio labur batekin hasiko da bisita. Hortik, ibilgailu partikularretan, "Guardetxe"-ra joango gara, eta han ekingo diogu ibilaldiari, pagadia ezagutzeko eta, tarteko, hainbat trikuharri bisitatzeko. Trikuharri hauek Neolitotik artzaintzaren presentziaren lekuko dira.

Jarduera "**MIRUA, Actividades de Naturaleza**" enpresaren eskutik egingo da, eta pertsonako **8€ko prezioa** izango du. Bisitak egiteko alde aurretik izena eman behar da (plaza mugatuak) **info@mirua.com** helbide elektronikoan edo **608 560 369** telefonoan. Informazio gehiago: www.mirua.com

Behaketa astronomikoa Aralarko San Migelen

Aralarren azken urteotako jarduera garrantzitsuenetako bat behaketa astronomiko gidatua izan da. Aurtengo proposamena **abuztuaren 20an** gauzatuko da, Aralarko San Migel santutegian. Berez, meteorologiak uzten badu, kalitate bikaineko obserbatorio natural bat da santutegia. Abuztuan, besteak beste, pertseida famatuak (izar-zaparrada) ikusi ahal izango ditugu.

Jarduera hau **Astronavarra Sarearekin** egiten da, baina izena Lekunberriko turismo bulegoan eman behar da, 948 50 72 04 telefonora deituz edo oit. Lekunberri@navarr.es helbide elektronikoan... Pertsona bakoitzeko prezioa **5 €koa** da eta alde aurretik ordaindu behar da bulegoan bertan edo ES62 3035 0119 28 1190009806. Informazio gehiago: www.astronavarra.org.



Baso bainuak:

Aralarrek datorren abuztuaren 21erako (igandea) esperientzia paregabea proposatzen du; Aralarko natura harrigarriak eskaintzen digun gutzia ikusteko, usaintzeko, probatzeko, sentitzeko eta entzuteko aukera emango digu. Egunerokoarekin deskonektatzeko ariketa, zentzumenen eta behaketaren bidez natura eta gure barnealderakin batera konektatuz.

Yugen Green tokiko enpresa da ekintza honen garapenaren arduraduna, erreserbak **626 983 912** edo info@yugen.green.com korreoaren bitartez egin behar ditugularik. Prezioa pertsona bakoitzeko **15€** dira. Informazio gehiago: www.basanatura.com

“Escape” bisitak Mendukilon (Astiz-Larraun):

Aurten ere, **Mendukiloko lezeak** bisita bereziak eskaintzen dizkigu, urtean zehar haitzulora egiten diren ohiko bisitak aberastuz. Oraingo honetan, familientzako eta haurrentzako jarduera da, eta, bertan, aurretiazko proba-sorta batzuk “giltza” emanen digute kobazulora sartzeko. Taldean edo familian egiteko jarduera bat da, haitzuloaz eta haren ingurune hurbilaz beste era batera ezagutzeko aukera ematen diguna, kasu honetan “escape route” eran.

Bisita hauek abuztuak 3,10 (euskaraz), 17, 24 eta 31an izanen dira. Erreserbak www.mendukilo.com webgunearen bitartez egin behar dira eta informazio gehiago behar izatekotan **948 396 095 / 608 623 604** telefonora deitu dezakegu.

Lankidetzahitzarmena

Programazio hori, 2018az geroztik, Aralar mendian eta inguruetan bultzatzen ari diren jardueretako bat da, urte horretan Aralarko San Migel santutegiak, Aralar Elkarteak, Sakana Garapen Agentziak eta Plazaolako Turismo Partzuergoak sinatutako lankidetzahitzarmenetik abiatuta. Akordio honen bidez, eremu horretan erabilera publikoa sustatzeko ekintzak bultzatzen dira, baita eremu natural honen balio naturalak, kulturalak eta historikoak babestu eta sustatzen dira ere, turismo jasangarria (soziala eta ingurumenekoa), ingurumenarekiko sentsibilizazioa eta hezkuntzaren helburuak lortzeko helburuan.

Sakana Garapen Agentziak, Aralar Elkarteak eta Plazaola Partzuergo Turistikoak programa hau antolatu eta finantzatu dute, ahalik eta jende gehien erakartzeko asmoarekin, batez ere, gure lurraldera bisitan etortzen direnak, hoiek ere gure zonaldea, helmuga turistikoa bezala sustatu eta promozionatu dezaten. Horrela, erakunde hauek hobetsi egiten dituzte jarduera bakoitzerako ezarritako prezioek. Gainera, Nafarroako Gobernuak Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritzaren laguntza du.

Aralar, 2020-VII-27